

TXOSTENA

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikuluan xedatzen denez, erregelamenduzko lege proiektu edo aurreproiektu bat egin aurretik kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren web atariaren bidez, jakiteko zer iritzi duten etorkizuneko arauaren eraginpean gerta litezkeen subjektuek eta erakunde nabarmenenek. Txostenean gai hauek jasoko dira:

- a) Ekimenarekin zer problema konpondu nahi diren.
- b) Araua onestea beharrezko eta egoki den.
- c) Arauak zer helburu dituen.
- d) Hori onetsi ezean, zer beste konponbide egon litezkeen (arauak edo arau ez direnak).

Dena dela, artikuluko horren 4. apartatuak ezartzen du halako kontsulta publikoa ez egitea ere badagoela, baldin eta arau-proposamenak eragin esanguratsurik ez badu jarduera ekonomikoan, arauaren xede diren herritarrei betebeharrak garrantzitsurik ez badakarkie edo arautzen dituen aspektuak partzialak badira.

Abenduaren 29ko 295/2000 Foru Aginduaren bidez, 180 eredu onetsi zen (“errentamendu edo azpierrementamenduen ondoriozko errenta edo etekin batzuei dagozkien atxikipenen eta konturako sarreraren urteko laburpena; atxikipenak eta konturako sarrerak pertsona fisikoen errentaren gaineko, sozietateen gaineko eta egoitza ez dutenen errentaren gaineko (finkagune iraunkorra) zergetakoak dira”).

Abenduaren 28ko 25/2016 Foru Legearen bidez (zenbait zerga aldatzeari eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzkoa zen foru lege hori), berrogeita hamargarren xedapen gehigarri bat erantsi zion Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginari. Hark atxikipen betebeharrak berri bat sortu zuen landa higiezinaren errentamenduetarako edo azpierrementamenduetarako, eta atxikipen-portzentaje bat ezarri zen, edo

konturako sarreraren portzentaje bat, hiri higiezinatarako. Kontuan izanik zer antzekotasun duen informazio betebeharrak berri honek hiri higiezinaren errentamendu edo azpierrementamenduetako betebeharrarekin, komenigarritzat jotzen da betebeharrak hori 180 ereduaren sartzea, hor deklaratzeko baitira aipatutako hiri ondasunen etekinak eta sarrerak. Orobat, kontuan izanik ia hogeita urte igaro direla foru agindu hori onetsi zenetik, eta hainbat aldaketa izan dituela urteetan zehar, komenigarritzat jotzen da foru agindu berri bat egitea, aurrekoa indargabetzen duena, eta, hala, aipatutako ereduaren arauak eguneratzea.

Horri dagokionez, ulertu behar da 180 ereduaren onesteko foru dekretuaren proiektua (180 ereduak: “errentamendu edo azpierrementamenduen ondoriozko errenta edo etekin batzuei dagozkien atxikipenen eta konturako sarreraren urteko laburpena; atxikipenak eta konturako sarrerak pertsona fisikoaren errentaren gaineko, sozietatearen gaineko eta egoitza ez dutenen errentaren gaineko (finkagune iraunkorra) zergetakoak dira”) bat datorrela urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluko 4. apartatuarekin (39/2015 Legea, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa), proiektua egin aurreko kontsulta publikorik ez egiteko baldintzak betetzen baitira: arau-proposamenak ez du eragin esanguratsurik jardueraren ekonomikoan, arauaren xede diren herritarrei ez dakarkie betebeharrak garrantzitsurik eta arautzen dituen aspektuak partzialak dira.

Iruñean, 2017koaren(e)an.

ARAUEN GARAPEN ETA AHOLKULARITZA JURIDIKORAKO ZERBITZUKO ZUZENDARIA

Arauen Garapen eta Aholkularitza Juridikorako Zerbitzua
Servicio de Desarrollo Normativo y Asesoramiento Jurídico

Javier Zabaleta Zúñiga